

Prentsa oharra

Nota de prensa

Trafiko mozketak eta autobus zerbitzuen aldaketak igande honetan Maratoi Erdia dela eta

Boulevarda eta Kontxa pasealekua itxi egingo dira 13:00ak arte gutxi gorabehera

Igande honetan, hilaren 7an, Maratoi Erdia itzuliko da Donostiara bere 23. edizioa ospatzeko. Ibilbideak hiriko kale nagusienak zeharkatzen ditu, eta ondorioz, trafikoa etengo da Erdialdean, Grosen eta Antiguan, batez ere 9:45etik 13:00ak arte gutxi gorabehera. Dbus zerbitzuetan ere eragina izango du lasterketak eta aldaketak izango dira ibilbide eta geltokietan.

Bi distantziako lasterketa (21k eta 10k) 10:00etan abiatuko da Boulevardetik.

10:00etatik 12:00etara Dbuseko autobusetako bidaiak dohainik izango dira erabilzailleentzat, lasterketagatik eraginak izango dituzten lineetan. Korrikalariak, udaleko autobusetan doako sarbidea ere izango dute dortsala aurkeztuz 7:30etik 13:30era.

Kontsultatu [ibilbideen eta geltokien aldaketak](#) iganderako, Dbusen webgunean.

Eraginak

Irteera eta helmuga Boulevardean izango dira eta, beraz, 6:30etik 14:00etara, zumardi hau itxita egongo da Legazpi kaletik Hernani kaleraino.

Kontxa pasealekua 9:45etik 12:30era itxiko da.

Lasterketako ia errepide guztiak konoz beteak egongo dira eta beraz, ibilgailuak eta korrikalariak aldi berean egon ahal izango dira

Ibilbidea (2 buelta)

Boulevard - Hernani (autobus-erreia) Andia - Miramar; Askatasunaren hiribidea (Urbietan eta Easoko tartean); Easo; Zubieta (autobus-erreia); Kontxa pasealekua; Antiguako tunela; Zumalakarregi (ezkerreko erreia); Tolosa (ezkerreko erreia); biraketa Ibaeta plazan ; Tolosa (ezkerreko erreia); Zumalakarregi (ezkerreko erreia) ; Antiguako tunela; Kontxa pasealekua; San Martin; Foruen pasealekua (eskuineko erreia); Espainia plaza; Argentinaren Errepublikaren (eskuineko erreia); Zurriola zubia; Zurriola hiribidea (ezkerreko erreia); Nafarroa hiribidea; biraketa José Aranan; Nafarroa hiribidea; Zurriola hiribidea (autobus-erreia); Zurriolako zubia (autobus-erreia); Erregina Erregeordearen kalea (autobus-erreia); Boulevard.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Auzoetarako sarrerak eta irteerak

Hirira sartzeko trafikoa itxi ondoren, hiriko auzoetako trafikoaren sarrera eta irteera honako hau izango da:

- Ondarreta edo Igeldotik irten nahi duenak Zumalakarregi etorbidetik eta Tolosa hiribidetik egin beharko du
- Ibaetatik irten nahi duenak Ibaetako plazarantz jo beharko du, eta bertatik nahi duen norabidera joateko aukera izango du, Tolosa hiribidetik, Añorgarako norabidean, Lugaritzetik Amarrarantz, edo Zarautz kaletik, Antiguarantz
- Berio edo Arriola pasealekura sartu nahi duenak Amerika plaza – Tolosa hiribidea – Ibaeta plaza – Bernardo Estornes – Lautximinieta plaza – Berio pasealekua hartu beharko du.
- Hirira Tolosa hiribidetik sartzen denak Zarautzik edo Izostegiko bidetik zirkulatu beharko du.
- Antiguako biztanleek: Zumalakarregi hiribideko edo Tolosa hiribideko eskuineko erreia erabili ahal izango dute.
- Kontxako pasealekurako sarbidea itxiko da bi noranzkoetan, eta, beraz, erdialderako noranzkoan, GUZTIZ, desbideratuko da Zumalakarregi – Satrustegiko biribilgunetik Mikeletesera – Pio Barojara
- Igeldo – Ondarreta aldera joan nahi duten autobus eta egoiliar akreditatuek Matiako luzapenetik sartu eta Antiguako tunelaren aurreko biran desbideratu ahal izango dira.
- Sagueseko egoiliarak sartu ahal izango dira Nafarroa – Rodil – Alexandria – Zectoria – Nafarroa - J.M. Barandiaran kaleetatik.
- Portura edo Kanpandegi kalearen ondoko bideetara sartzeko, Kolon - Santa Katalina - Argentinako Errepublika – Salamanca - Soraluze pasealekua – Abuztuaren 31 – Mayor - Ijentea
- Erdialdera sartzeko, San Martzial eta Boulevard arteko eremuan bizi direnak Gernikako arbola – Fueros - Etxaidetik sartuko dira.
- Erdialdera sartzeko, Urbieta, Zubieta eta San Martin inguruko egoiliarak Easo kaletik sartuko dira.

Prensa oharra

Nota de prensa



- Saguesetik, Pasealeku Berritik, Portutik edo zirkuituaren barruko beste puntu batzuetatik irten nahi duenak egin ahal izango du, antolakuntzaren edo trafikogenteen jarraibideei jarraituz

Autobusak

Bestelako autobusetako ibilbide eta geralekuetan aldaketak egingo dira ere: [Ekialdebus](#) eta [Lurraldebus](#).

Donostia, 2024ko apirilaren 4a